Iñigo Arriandiaga Hernando (1, guztira 2)
Alkatea / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 17/04/2026
HASH: 971d3fb07bbfb69655c2d8cea60fb2964

Juan Miguel Erefo Ealo (2, guztira 2)
Kultura, Gazteria eta Kirol Arduraduna
Sinaduraren data: 19/04/2026
HASH: 1a4b04799b1117d05d97f340cf307c1b

KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA
PLIEGO CLÁUSULAS TÉCNICAS

Euskal Dantzen programa

Esp. zk.: 4369/2026

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xede nagusia da Galdakaoko udalerriko 12 urtetik gorako nerabe eta helduentzako euskal dantzen ikastaroak antolatzea ere, hori guztia euskaraz eta genero perspektiba txertatuta. .

Helburu espezifikoak

Euskal dantzen tradizioa berreskuratzea eta herri mailan erromeriak suspertzea, batez ere gazte eta helduen elkargune bihur daitezen.

Urteen joan-etorrian aldatzen joan den erromerien funtzioa eta esanahia berreskuratzea eta berpiztea, dantzaren alderdi jostagarria berreskuratu nahian.

Gazteen eta helduen artean euskal tradiziozko dantzen transmisioaren garrantzia helaraztea eta kolektibo horren parte-hartze aktiboa lantzea, euskal dantzen ikastaroak eskainiz.

2.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK ETA HARTZAILEAK

12 urtetik gorakoentzako euskal dantzen ikastaroak irailetik ekainera garatuko dira (10 hilabetez), Torrezabal Kultur Etxean (1,5 ordu astean talde bakoitzarekin), Gabonetan, Aste Santuetan edota eskola-egutegian aurreikusitako beste jaiegun batzuk kenduta.

Talde bi osatzea aurreikusi da. Taldea osatzeko, gutxienez 10 pertsona egotea eskatuko da. Era berean, talde bakoitzean gehienez 30 pertsona egon ahal izango dira.

Taldeen banaketa eta horien antolaketa Galdakaoko Udaleko Kultura Arloaren eta adjudikaziodunaren artean adostuko dira.

Galdakaoko Udalak kudeatuko ditu bai inskripzioa, eta baita matrikulen kobrantza ere, eta jarduerak dakarren publizitatea egiteko ardura ere berak izango du. Beraz, bera izango da datu pertsonalen erantzule.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objetivo principal que se pretende cubrir con este contrato es organizar cursillos de danzas vascas para adolescentes mayores de 12 años y personas adultas del municipio de Galdakao.

Objetivos específicos

Recuperar la tradición de las danzas vascas y revitalizar romerías a nivel local para que se conviertan, sobre todo, en puntos de encuentro entre jóvenes y personas adultas.

Recuperar y reavivar la función y significado de las romerías que ha ido cambiando con el paso de los años, tratando de recuperar la parte lúdica de la danza.

Trasladar la importancia de la transmisión de las danzas tradicionales vascas entre jóvenes y personas adultas y trabajar la participación activa de este colectivo, a través de cursillos de danzas vascas.

2.- CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO Y PERSONAS DESTINATARIAS

Los cursillos de danzas vascas para personas mayores de 12 años se desarrollarán de septiembre a junio (10 meses), en Torrezabal Kultur Etxea (1,5 horas semanales con cada grupo), excepto vacaciones de Navidad, Semana Santa u otros días festivos previstos en el calendario escolar.

Está previsto que se formen dos grupos. Para formar el grupo se exigirá un mínimo de 10 personas. Asimismo, podrá asistir un máximo de 30 personas en cada grupo.

La distribución de los grupos y su organización se acordará entre el Área de Cultura del Ayuntamiento de Galdakao y la adjudicataria.

El Ayuntamiento de Galdakao será quien gestione tanto la inscripción como el cobro de matrículas, y se responsabilizará de realizar la publicidad que conlleve la actividad. Será el responsable, por lo tanto, del tratamiento de los datos personales.

Baliozkotze Kod.: 4T6TG79AT9RGAJDDDHECKXH33
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 6

3.- ZERBITZUAREN ZEHAZTAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Programa lantzea eta kudeatzea

Egin beharreko lana agiri honetan aurreikusitako helburuak betetzera bideratuko du adjudikaziodunak. Edozein kasutan ere, egin beharreko lana eta prestazioa honakoetan laburbilduko da:

-Ikastaroen programazioa egitea eta abian jartzea Galdakaoko Udaleko Kultura Arloarekin batera.

-Egitarauak zehatz-mehatz zehaztuko ditu helburuak, programa, metodologia eta garatuko diren jardueren kronograma.

-Ikastaroetan landu beharreko edukiak honakoak izango dira, gutxienez:

- Jota eta porruak.
- Arrimatekoak.
- Jauziak.
- Soka dantzak.
- Kontradantzak.
- Ingurutxoak.

-Klase praktikoak, erakargarriak eta atseginak, hainbat instrumenturekin grabatutako musikarekin, edo zuzeneko musikarekin.

Programaren jarraipena eta koordinazioa

-Ikastaroaren bukaeran hobekuntzarako proposamenak jasoko dituen balorazio-txostena aurkezteaz gain, egindakoaren lagina izango den memoria, bideo edo beste euskarri grafikoren bat aurkeztuko da.

-Galdakaoko Udaleko Kultura Arloarekin koordinazioa, zerbitzuaren garapenarekin zerikusia duen orotan.

Programazioa eta landu beharrekoa

Enpresa esleipenduna arduratuko da programazio pedagogikoa egiteaz eta hura gauzatzeko elementu guztiak zehazteaz.

3.- SERVICIOS Y OBLIGACIONES DEL/DE LA ADJUDICATARIA

Confección y gestión del programa

La adjudicataria orientará el trabajo a realizar al cumplimiento de los objetivos previstos en este documento. En todo caso, el trabajo y prestación a realizar se resumirá en:

-Elaborar y poner en marcha, de acuerdo con el Área de Cultura del Ayuntamiento de Galdakao, la programación de los cursillos.

-La programación recogerá detalladamente objetivos, programa, metodología y cronograma de actividades a realizar.

-Los contenidos mínimos a trabajar en los cursillos serán los siguientes:

- Jota eta porruak.
- Arrimatekoak.
- Jauziak.
- Soka dantzak.
- Kontradantzak.
- Ingurutxoak.

-Clases prácticas, atractivas y agradables, con música grabada con diferentes instrumentos, o en directo.

Seguimiento del programa y coordinación

-Al final del cursillo, además de presentar el informe de valoración, incluyendo propuestas de mejora, se presentará una memoria, vídeo u otro soporte gráfico que sirva de muestra de lo realizado.

-Coordinación con el Área de Cultura del Ayuntamiento de Galdakao en todo lo que tenga que ver con el desarrollo del servicio.

Programación y contenidos a trabajar

La empresa adjudicataria se responsabilizará de realizar la programación pedagógica e indicará todos los elementos para llevarla a cabo.

Baliozkotze Kod.: 4T6TG79AT9RGAJDDDHECKXH33
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orialdea, guztira 6

Jarduera osagarriak

Adjudikaziodunak urtean zehar herriko euskal erromeriak berreskuratzea sustatuko du, eta ikasle taldeari lagunduko dio herrian antolatzen diren jai-ekitaldietan (Gabonak, inauteriak...) parte har dezaten bultzatuz.

Bideo grabaketa eta edizioa

Enpresa adjudikazioduna bideo bat grabatzeaz, ekoizteaz eta editatzeaz arduratuko da. Bideo horrek egindako lanak bilduko ditu, eta bideo-muntaia bat editatuko du, gutxi gorabehera 10 minutukoa, talde bakoitzaren lana laburbilduko duena. Euskarri hori ikastaroa bukatu ondoren emango dio Galdakaoko Udalari.

4.- MEMORIA TEKNIKOA

Lizitatzaileak memoria bat aurkeztu beharko du honako aurkibidea jarraituz. Memoria hori izango da hiru sortetako proiektuak baloratzeko oinarria:

Memoria teknikoaren aurkibidea:

a) Programaren proiektu zehatza.

Gutxienez, honako alderdiak jasoko ditu:

-Oinarri teorikoa, eta proiektua Galdakaoko udalerriaren errealitatera egokitzea. Programazioa eta lan-metodologia. Ebaluazio, jarraipen eta koordinazio-sistemaren azalpena.
-Programan erabiliko den material osagarriaren, baliabideen eta tresna teknikoen azalpena (paper formatuan, euskarri digitalak, baliabide musikalak, ikus-entzunezkoak…).

Urtean zehar Galdakaoko erromerietan parte hartzeko proposamena (non, noiz). Bertan adieraziko da, besteak beste: zergatik egiten den proposamena, metodologia, aukeraketa, beste eragile batzuekin elkarlana, etab.

5.- BALIABIDEAK

Zerbitzua modu egokian emateko ekipo eta baliabide material zein giza baliabideak enpresa kontratistak jarriko ditu.

Beraz, enpresa esleipendunak giza-baliabide egokiak jarriko ditu. Egin den aurreikuspena honako hau izan da:

Actividades complementarias

La adjudicataria promoverá la recuperación de las romerías vascas durante el año y acompañará al grupo en aquellas que se organicen en la localidad con motivo de diversos actos festivos (Navidad, Carnaval...), fomentando su participación.

Grabación y edición de un vídeo

La empresa adjudicataria se encargará de la grabación, producción y edición de un video que recogerá las labores realizadas, y editará un montaje de vídeo de, aproximadamente, 10 minutos que resumirá la labor de cada grupo y entregará al Ayuntamiento de Galdakao a la finalización del cursillo.

4.- MEMORIA TÉCNICA

La licitadora deberá presentar una memoria con el siguiente índice, que servirá de base para la valoración de los proyectos en los tres lotes:

Índice para la memoria técnica:

a) Proyecto detallado del programa.

Contendrá, al menos, los siguientes aspectos:

-Fundamento teórico y contextualización del proyecto a la realidad del municipio de Galdakao. Programación y metodología de trabajo. Descripción del sistema de evaluación, seguimiento y coordinación.
-Explicación del material complementario, recursos y medios técnicos que se pretenden utilizar (formato papel, soportes digitales, medios musicales, audiovisuales…).

Propuesta de participación en romerías de Galdakao durante el año (cuándo, dónde), en la que se especificará, entre otras cuestiones: las razones por las que se hace dicha propuesta, metodología, selección, colaboración con otros agentes, etc.

5.- RECURSOS

La empresa contratista aportará los equipos y medios materiales y personales necesarios para la correcta prestación del servicio.

Por lo tanto, la empresa adjudicataria deberá aportar los adecuados recursos personales. La previsión que se ha realizado es la siguiente:

Baliozkotze Kod.: 4T6TG79AT9RGAJDDDHECKXH33
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 6

- Langile bat: dantza-ikastaroetako irakasle bat, aldi berean koordinatzaile-solaskide lanak egingo dituena.

- Una trabajadora: una persona profesora de los cursillos de danza, que al mismo tiempo hará las labores de coordinadora-interlocutora.

Koordinazio-lanak proiektuaren koordinazio orokorrari, kontratazioei, aseguruei eta programa pedagogikoaren diseinuari dagozkie. Koordinatzailea Udalarekin elkarlanean arituko da jardueraren jarraipen zehatza egiteko.

Las labores de coordinación se refieren a la coordinación general del proyecto, contrataciones, seguros, diseño del programa pedagógico. Colaborará con el Ayuntamiento para poder realizar en todo momento un seguimiento exhaustivo de la actividad.

Programari atxikitako baliabideen betekizunak:

Requisitos para los recursos adscritos al programa

-Kontratuari atxikitako langile guztiek C1 euskara maila egiaztatu beharko dute, 187/2017 Dekretuarekin bat etorriz. Bestela, ikasketak euskaraz eginda, hizkuntza-ziurtagiritik salbuetsita egon beharko dute, 47/2012 Dekretuaren arabera.

-Todo el personal adscrito al contrato acreditará un nivel de euskera C1, conforme al Decreto 187/2017. En caso contrario, deberá estar exento del certificado de idiomas según el Decreto 47/2012 por haber cursado los estudios en euskera.

-**Esperientzia**.

-**Experiencia**.

Atxikitako irakasleen kasuan, gutxienez urtebeteko (ikasturte akademikoa) esperientzia dantzen irakaskuntzan.

Un mínimo de un año (curso académico) de experiencia en la enseñanza de danzas.

Programen garapenerako kontratatutako langileei dagokienez, enpresa adjudikaziodunak laneko, Gizarte Segurantzako, lan-arriskuen prebentzioari buruzko eta indarrean dagoen gainerako legedia bete beharko du.

En relación al personal trabajador contratado para el desarrollo del programa la empresa adjudicataria deberá cumplir la legislación laboral vigente, así como de la Seguridad Social y de prevención de riesgos laborales.

Esleipendunari dagokio sor daitezkeen laneko bajak berehala betetzea. Horretarako, esleipendunak dagozkion ordezkapenak jakinaraziko dizkio Udalari, eta ordezko langileek eskatutako lanbide-profila eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko du.

Corresponde a la adjudicataria cubrir inmediatamente las bajas laborales que pudieran originarse. Al efecto la adjudicataria comunicará al Ayuntamiento las sustituciones que procedan, debiendo acreditar que el personal sustituto ostenta el perfil profesional y requisitos exigidos.

Kontratua amaitzerakoan, erakunde edo entitate adjudikaziodunak dagozkion agiriak aurkeztuko ditu, hain zuzen ere, langileen kontratazio-betebeharrak eta Gizarte Segurtasun baldintzak bete direla egiaztatzen dutenak.

Al finalizar el contrato, la empresa o entidad adjudicataria presentará los documentos que certifiquen que se han cumplido las obligaciones de contratación y de la Seguridad Social para con el colectivo trabajador contratado.

Laneko zereginetan adin txikikoekin harremanetan

dauden zerbitzuko langile guztien aurrekari penal espezifikoen egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu enpresak, hain zuzen ere, sexu-delituei buruzkoak. Hala egiteko xedatzen du Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak, Haurtzaroa Babesteko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatzen duena.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 1/1996 de

Protección Jurídica del menor, modificada por la Ley 26/2015, de 28 de julio, de Protección de la Infancia, se presentarán certificados de antecedentes penales específicos sobre delitos sexuales de todas las personas trabajadoras del servicio que en el desempeño de sus funciones trabajen en contacto con menores.

Baliozkotze Kod.: 4T6TG79AT9RGAJDDDHECKXH33
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 6

6.- ZEHARKAKO LERROAK

Zeharkako lerroak dira kontratatutako zerbitzuak garatutako eta sustatutako jarduera guzti-guztietan egon behar duten lan ildoak:

6.1. Hizkuntza.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua euskaraz gauzatzea eskatzen dute.

Era berean, kontratuaren xede diren idatzizko agiriak, memoriak, zirkular informatiboak, gutunak edota beste era bateko lanak, eta Udalari, familiei edo interesdunei entregatu behar direnak, edota jendaurrean jarri behar direnak, Hizkuntza Politikako eta Hezkuntzako Unitate Teknikoan ezarriko dituen hizkuntza irizpideen arabera egingo dira. Beraz, komunikazio horrek Unitatearen oniritzia izan beharko du.

Erabiltzaile eta talde bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuta, estrategiak inplementatuko dira talde bakoitzean euskararen aldeko jarrerak eta erabilera bultzatzeko.

6.2. Generoaren parekidetasuna.

Programan emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza osasuntsua eta aukera berdintasunean bermatzeko bitartekoak jarriko dira: debateetan eta erabakiak hartu behar direnean emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatuko da, genero irizpidea kontuan hartuko da ekintzak antolatzeko orduan, hedapen materialean azalduko diren irudiak aukeratzerakoan…

Entitate adjudikaziodunak ez du lengoaia sexistarik erabiliko programan zehar egindako dokumentuetan, bideoetan eta ikuskizunetan, ezta irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexista erakusten dutenik ere.

Era berean, emakumeen irudiari dagokionez berdintasuna, dibertsitatea, rol aniztasuna eta erantzukidetasuneko balioak zabaltzen dituen irudia sustatuko da.

Generoaren ikuspegia proiektuaren diagnostikoan ezeze helburuetan eta planteatzen diren jardueretan ere hartuko dira kontuan.

6.- LÍNEAS TRANSVERSALES

Se consideran líneas transversales aquellas líneas de trabajo que han de estar presentes en todas y cada una de las actuaciones desarrolladas y promovidas por el servicio contratado.

6.1. Idioma.

Las características específicas de la prestación objeto del contrato conllevan a que el contrato se materialice en euskera.

Asimismo, los documentos escritos, memorias, circulares informativas, cartas u otros trabajos que constituyan el objeto del contrato y que vayan a ser entregados al ayuntamiento, a las familias, personas interesadas y/o expuestos al público deberán respetar los criterios lingüísticos que establezca la Unidad Técnica de Política Lingüística y Educación, por lo que toda comunicación deberá contar con el visto bueno de dicha Unidad.

Teniendo en cuenta la realidad lingüística de cada usuario/a y grupo, se implementarán estrategias para fomentar el uso del euskera en cada grupo y promover actitudes a favor del euskera.

6.2. Paridad de género.

Se pondrán los medios para que en el programa se garantice una convivencia saludable entre hombres y mujeres en igualdad de condiciones: en los debates y en las decisiones se impulsará la presencia y la participación activa de las mujeres, se tendrá en cuenta el criterio de género a la hora de organizar actividades, al elegir las imágenes que se utilizarán como material de difusión…

No se empleará un lenguaje sexista en los documentos, vídeos y espectáculos realizados durante el programa, ni tampoco imágenes que muestren cualquier tipo de discriminación o estereotipo sexista.

Asimismo, en cuanto a la imagen de las mujeres se fomentará una imagen con valores como la igualdad, la diversidad, la pluralidad de roles y la corresponsabilidad.

La visión de género se tendrá en cuenta tanto en el diagnóstico del proyecto, como en los objetivos y las actividades planteadas.

Baliozkotze Kod.: 4T6TG79AT9RGAJDDDHECKXH33
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 6

Zeharkakotasunez sartuko dira nesken zein mutilen egoerak, premiak, interesak, helburuak eta arazo desberdinak ere, kontuan hartuta bai batzuen eta bai besteen aniztasuna.

Se incluirán, de forma transversal, las diferentes situaciones, necesidades, intereses, objetivos y problemas de las mujeres y hombres en la totalidad del proyecto, teniendo en cuenta la diversidad de ambos.

6.3. Inklusioa.

Gizartean dagoen aniztasuna kontuan hartuko da eta dibertsitatea zainduko da.

Ikuspegi integratzaile batetik lan egitea litzateke arreta berezia jartzea bazterketa-arrisku erreal bat agerian uzten duten askotariko adierazleak erakusten dituzten pertsonen eskaerei eta beharrei (ezgaitasunen bat duten pertsonak, gizarte abileziarik eza, kanpo jatorria duten pertsonak, etab.).

6.3. Inclusión.

Se tendrá en cuenta la pluralidad existente en la sociedad y se atenderá la diversidad.

Trabajar desde una perspectiva integradora supone prestar especial atención a demandas y necesidades de las personas que muestran indicadores de diverso tipo que ponen de manifiesto un riesgo real de exclusión (personas con discapacidades, ausencia de habilidades sociales, personas de origen inmigrante, etc.).

ELEKTRONIKOKI SINATUA

Baliozkotze Kod.: 4T6TG79AT9RGAJDDDHECKXH33
Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 6